

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzua

**Koroatzearen auzoan energia termiko berriztagarria banatzeko sistema gauzatu eta ustiatzeko Plan Bereziak —eta izan ditzakeen zabalpenak— mugatutako jabari publikoari erabilera pribatua emateko deialdiaren baldintza-agiria**

1. Xedea. Indarrean dagoen Koroatzearen auzoko Plan Bereziaren esparruan adierazitako espazio publiko osoaren erabilera pribaturako jabari-emakida ematea; 2017ko uztailaren 21eko osoko bilkuran onetsi zen Plana behin betiko, eta abuztuaren 18ko ALHAOn argitaratu.

Aipatutako Plan Bereziarekin bat etorritik, energia berriztagarriez lortutako beroa esparru osoan banatzeko sare bat gauzatu eta ustiatzea da horren helburua.

Emakidaren xedearen barne sartzen da, orobat, esleipendunak indarrean dauden arauak galdatzen duten dokumentazio teknikoa aurkezteko beharra, eta horren kostua bere gain hartzea, alegia, behar diren obra- eta instalazio-proiektuak, ingurumen-memoria, osasun- eta segurtasun-azterlana, obra zuzendu eta gauzatzea, instalazioen egokitasunaren ziurtagiriak —kasua bada—, eta horien ustiapena, mantentzea eta kontserbazioa bermatzeko behar den oro, baita aginduzko udal lizentziak lortzea ere.

Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93. eta 94. artikuluetan dago araututa, oro har, jabari publikoaren gaineko emakiden erregimena, eta toki-erakundeei dagokienean, berariaz, Ondasunen Araudia onetsi zeneko ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean, eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuan, zeinak toki araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak jasotzen dituen testu bategina onesten baitu.

2. Kanona. Jabari publikoaren erabilera pribatiboak emakidadunak dagokion kanona ordaindu beharra dakar berekin. Baldintza-agirian zehaztutakoaren arabera, gutxieneko kanona aurre-aurreko ekitaldiko urteko fakturazio gordinaren ehuneko 1,25 izango da. Kanona balioespen-irizpidea izango da, eta lehiatzaileek gora eginez hobetu ahalko dute hori.

3. Administrazio-klausula partikularren plegua. Dosierra interesa duen edonork kontsultatzeko moduan egongo da, [licitacioncoronacion@vitoria-gasteiz.org](mailto:licitacioncoronacion@vitoria-gasteiz.org) posta elektronikora idatziz aurretiaz hitzordua eskatuta, Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan (Teodoro Dublang Margolariaren Dublang, 25), eskaintzak aurkezteko adierazitako egunaren bezpera arte, jendaurreko orduetan.

Administrazio-klausula partikularren orria udalaren <https://v-g.eus/coronacion> web-orrian ere kontsulta daiteke.

Zalantzarik izanez gero, aipatutako helbide elektronikora idatz daiteke horiek argitzeko.

4. Proposamenak aurkezteko lekua, epea eta modua. Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behe; 01008 Vitoria-Gasteiz— aurkeztu beharko dira eskaintzak, 08:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera, urriaren 12ko 1098/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, edo postaz, 30 egun

naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Postaz igorritz gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lehiatzaileak, baita bidalketa egunean bertan eskaintza egin izana deialdia egin duen organoari jakinarazi ere, posta elektronikoz ([ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org](mailto:ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org)).

Lizitaziorako dokumentazioa hiru gutun-azal itxitan aurkeztu beharko da: A gutun-azalean Formula baten mende ez dauden AgiriTeknikoak sartuko dira; B gutun-azalean, Formula baten mende dauden AgiriTeknikoa eta Ekonomikoak, eta C gutun-azalean, Gaitasun eta kaudimenari dagozkionak. Gutun-azalen kanpoko aldean zein lizitaziotarako diren adierazi beharko da, eta lehiatzaileak edo hura ordezkatzen duenak sinatuta egon beharko dute.

5. Agiriak ireki eta aztertzea. Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denean, balioespen batzordea eratuko da.

Gutun-azalak ireki eta aztertu ostean, balioespen batzordeak saioaren edo saioen akta egingo du, bermea ezartzeko eskatuko dio proposatutako lehiatzaileari, eta esleipen-proposamena egingo dio Tokiko Gobernu Batzarrari.

6. Behin betiko bermea. Esleipendunak behin betiko bermea jarri beharko du hamabost eguneko epean, esleipenaren jakinarazpena jasotzen duenetik kontatuta. Bermea okupatuko den jabari publikoaren eta egin beharreko lanen aurrekontuaren ehuneko 3koa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 12an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**